

PRENTSA OHARRA

39 proposamenetatik 10 aukeratzeko epea zabalik dago

Erabaki Hernani Decide Udal aurrekontuaren 500.000€ herritarrekin erabakitzeko aurtengo prozesua azken txanpan sartu da. Gaur aurkeztu dira orain arte egindako lanaren emaitza eta hemendik aurrera eman beharreko pausoak. Lehen fasean 533 proposamen jaso ziren. Leheneste fasea eta udal teknikarien balorazioaren ondoren, 39 geratu dira. Horien artean hamar aukeratu beharko dituzte hernaniarrek. Bozkatzeko epea azaroaren 12 arte egongo da irekita.

Partaidetza aurrekontu prozesu honen laugarren edizioa dugu. Prozesu honen amaieran herritarrok, guztira, udal aurrekontuaren 2.000.000€ erabakiak izango ditugu. Lau urteotan, metodologia bera mantendu dugu, baina urtez urte prozesua hobetzeko aldaketak egin ditugu.

- **1. fasea:** urtero bezala, proposamenak egin eta jaso ditugu. Apirila eta maiatza bitartean garatu da. 533 proposamen egin dituzte aurten hernaniarrek.
- **2. fasea:** ekainean, aurten lehendabiziko aldiz, proposamenen leheneste egin dugu. 533 horietatik 109 ingururekin geratu gara herritarrek adostutako irizpideak saio irekietan aplikatuz.
- **3. fasea:** uda garaia, urtero bezala, balorazio teknikoetarako baliatu da, eta 109 proposamen hauen balorazioak jaso dira iraila amaierarako.
- **4. fasea:** gaur aurkeztera gatozen azken fase hau, Erabaki Hernani prozesuaren momentu ezagun eta jendetsuena izan ohi da, proposamenak bozkatzearena, alegia.

109 proposamen horietatik hainbat elkartu dira proposamenak oso antzekoak zirelako. Horien adibide dira herriko gune ezberdinetako markesinak edota bankuak eskatzen diren proposamenak. Beste hainbat proposamen kanpoan geratu dira balorazio teknikoan: bideraezinak direlako, aurtengo aurrekontuan aurreikusiak daudelako, udal kudeaketaren bitartez egin daitezkeelako, edota 165.000€ko muga pasatzen dutelako.

Hori dela eta, azken fase honetako bozketan 39 proposamen izango ditugu. Aurreko urteetan baina 5 gehiago dira (lehenengo urtean 34 ziren, eta lehen urtean 32, adibidez).

39 proposamen hauen bozkatze fasea datorren urriaren 16an hasiko da eta azaroaren 12ra arte luzatuko da.

Hernanin erroldatutako 16 urtetik gorako herritar orok, urtero legez, 10 proposamen hautatu beharko ditu, ez gehiago, ez gutxiago. Baldintza hauek betetzen ez badira, boto baliogabea izango da.

Herritarrek bozkatzeko aukera izango dute:

- Erabaki Hernaniren webgunean
- Etxean jasoko den eskuorria bete eta postontzietan bota. Postontziak honako lekuetan aurkituko dira: Udaletxea, Biteri Kultur Etxea, Kiroldegia, Gaztelekua, Institutua, Goiz Eguzki, Sandiusterri, EPA eta auzo elkarten egoitza-lokal guztietan.

Horrez gain, prozesuaren eta proposamen guztien inguruko informazio eta xehetasun guztiak azaltzeko, hainbat aurkezpen saio ere egingo dira:

- Urriaren 18an lehen aurkezpena egingo da Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan
- Urriaren 23an, Zikuñagan
- Urriaren 25ean, Karabelen
- Urriaren 26an, Portun
- Urriaren 27an, Latsunbe Berrin
- Urriaren 30an, Sorgintxulon
- Azaroaren 2an, Floridan
- Azaroaren 8an, Lizeagan

Aurkezpen hauek guztiak arratsaldeko 19:00etan izango dira, eta Udaletxean egingo dena salbu, guztiak auzo elkarten lokal edo egoitzetan egingo dira.

Horrez gain, aurten, kaleko presentzia indartze aldera, 4 aste hauetan zehar "stand" bat ere jarriko da herriko gune ezberdinetan, kalean dabilzan herritarrak bozkatzera animatzeko helburuarekin.

Hasieran aipatu moduan, azaroaren 12an amaituko da bozketa garaia, eta aurreikuspena da hurrengo ostegunean, azaroaren 16an emaitzak aurkeztea.

Amaitzeko, aipatu beharra dago prozesu honen diseinu, jarraipen eta erabakiak herritarrez osatutako Talde Eragilearen esku daudela, eta gaurkoa, bertan hartutako erabakien azalpena besterik ez dela. Horrela, azaroan egingo den emaitzen aurkezpena talde eragileak berak egingo du.

Hernaniko herritar guztiak prozesuaren une erabakigarri honetan parte hartzera animatu nahi ditugu, aurretik proposamena egin duten zein egin ez duten herritar guztiak beraien bozka emanda. Hernaniarrek hernaniarrentzat egindako proposamenen artean erabakiak hartu eta Hernaniko bizitza publikoan erabakitzeko aukera paregabe hau baliatzeko deia egin nahi dugu.

PRENTSA OHARRA

Abierta la última fase para votar 10 de las 39 propuestas

Erabaki Hernani Decide, proceso participativo en el que la ciudadanía decide en qué se invierten 500.000 euros del presupuesto municipal, entra en su última fase. Hoy se ha presentado el trabajo realizado hasta ahora y se ha dado cuenta de los últimos pasos del proceso. En la primera fase se recogieron 533 propuestas. Después del ejercicio de priorización y la valoración técnica, han quedado 39 propuestas. La ciudadanía de Hernani podrá votar diez propuestas. El plazo de votación estará abierto hasta el 12 de noviembre.

El proceso de participación ciudadana Erabaki Hernani Decide para decidir sobre 500.000€ del presupuesto municipal ha llegado a su última fase. Mediante esta presentación queremos informarles sobre esta cuarta fase, y última, del proceso.

Al final de esta cuarta edición, habremos decidido ya sobre 2.000.000€. En estos cuatro años hemos mantenido la metodología, pero siempre incluyendo mejoras año tras año.

- Este año, como en los anteriores, hemos comenzado con las propuestas. Esta fase ha transcurrido entre abril y mayo; y, como sabréis, este año los/las hernaniarras han aportado 533 propuestas.
- En esta edición, por primera vez, hemos hecho una priorización de propuestas en junio. De todas las propuestas recogidas, atendiendo a criterios establecidos por los/las hernaniarras en sesiones abiertas, nos hemos quedado con 109.
- Como otros años, se ha aprovechado el periodo estival para hacer las valoraciones técnicas, y para septiembre se han recogido todas la valoraciones de las 109 propuestas.
- La fase de Hernani Decide que presentamos hoy, quizás sea la más popular y participativa, esta es, la votación de las propuestas.

De las 109 propuestas, algunas han sido unificadas debido a su parecido. Como ejemplo, hay varias propuestas donde se propone la instalación de bancos o marquesinas en diferentes lugares del pueblo. También hay otras que han quedado fuera del proceso por diferentes valoraciones técnicas: por su inviabilidad; porque ya se recogen en los presupuestos municipales; se pueden realizar con la gestión municipal sin inversión; o, superan el límite de 165.000€ por propuesta.

Por eso, al final han quedado 39 las propuestas para votar, cinco más que en años anteriores (por ejemplo: el año pasado fueron 34 y en la primera edición 32).

A continuación, queremos trasladar los detalles de esta última fase de votación que está a punto de comenzar:

El plazo de votación comenzará el próximo 16 de octubre, y finalizará el 12 de noviembre.

Toda persona mayor de 16 años censada en Hernani, como todos los años, deberá escoger 10 propuestas; ni más, ni menos. En caso de no cumplir con estas condiciones, el voto será nulo.

Se podrá votar en:

- Web de Erabaki Hernani Decide
- Rellenar el díptico que recibirás en casa y depositarlo en el buzón. Los buzones estarán colocados en los siguientes lugares: Ayuntamiento, Casa de Cultura Biteri, Polideportivo, Gazteleku, Instituto, Goiz eguzki, Sandiusterri, EPA y sede-locales de las asociaciones vecinales.

Además, se han organizado reuniones abiertas en varios barrios para informar del proceso y de todas las propuestas:

- 18 de octubre será la primera presentación en el Ayuntamiento, a las 19:00.
- 23 de octubre, en Zikuñaga
- 25 de octubre, en Karabel
- 26 de octubre, en Portu
- 27 de octubre, en Latsunbe Berri
- 30 de de octubre, en Sorgintxulo
- 2 de noviembre en Florida, y
- 8 de noviembre, en Lizeaga

Todas las reuniones serán a las 19:00, y, a excepción de la primera organizada en el Ayuntamiento, todas serán en los locales de las asociaciones vecinales.

Este año, con la intención de reforzar la presencia del proceso en las calles del pueblo, se pondrá un “stand” en diferentes puntos y lugares durante estas cuatro semanas con el objetivo de animar a la ciudadanía a votar.

Como se ha comentado al comienzo de la presentación, el plazo de votación finalizará el 12 de noviembre, y esperamos presentar los resultados de la votación el próximo jueves, 16 de noviembre.

Para concluir, comentar que el diseño, seguimiento y decisiones sobre el proceso han sido tomadas por el Grupo Motor, compuesto únicamente por hernaniarras participantes a título individual. Es por ello que dicho grupo realizará la presentación final del resultado.

Queremos animar a todos y todas las hernaniarras a participar en este momento decisorio, tanto a las que ya hayan realizado sus propuestas como las que no han participado hasta ahora. Propuestas realizadas por hernaniarras, para mejorar la calidad de vida de este pueblo, un momento oportuno para que todas seamos parte de esta decisión.